

## **PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA**

Startinnovarako aukeratu dugun proiektuaren helburua hasiera hasieratik nahiko garbi izan dugu. Izan ere, zerbitzuak eskainiz eta pertsona ezberdinen beharrak asetzean oinarritu gara. Argi dago, umeez, helduek nahiz adinduek geroz eta laguntza gehiago behar dutela beren egunerokotasunean hainbat arrazoi direla eta. Adibidez, umeen zaitza, etxeko lanak, erosketak, sukaldaritza...

Benetan interesgarria eta baliagarria iruditzen zaigu proiektu hau, laguntza bereziren bat behar duten pertsonekin lan egiten dugulako. Horietan asko bakarrik edota arazo batzuekin bizi dira eta beste norbaiten babesa eta laguntza behar dute. Hori dela eta, eguneko 24 orduak beraiekin harremanetan egon ahal izateko, gure enpresaren (Zerbilagun) aplikazio bat sortzea erabaki dugu. Aplikazio honen bidez, herrietako biztanleek, behar dituzten zerbitzuak eta laguntzak eskatzeko aukera dute.

Beraz lortu nahi dugun helburua laguntza behar duten pertsonen eguneroko gauzak egiteko norbait edukitzea da, bizitza errazteko eta gustura egoteko, baita laguntza behar dutenean, haien ondoan norbait egongo dela jakitea ere.

Bukatzeko, proiektu hau nola bururatu zaigun azalduko dugu. Izan ere, taldekide guztien artea "*Brain Storming*" bat eginez, hainbat ideia lortu genituen. Gehiengoa zerbitzu bat eskaintzeko proposamena zen. Beraz, ideia guzti horiek batuz, adin desberdinetako pertsonen zerbitzuak eskaintzea ideia ona izango zela iruditu zitzaigun. Gaur egun, teknologia berrikuntzaren eraginez, horrelako zerbitzua eskaintzeko erraztasuna dago. Gainera, zerbitzu anitzak sortu ditugu denak eskubide berdinak izateko eta laguntza mota ezberdinak jaso ahal izateko.